

## GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA PROBINTZIALAREN DIRU LAGUNTZA JASOTZEAN

*Donostian, 1979, otsailak 2*

### **Euskaltzainburuaren hitzak**

Jaunak:

Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren ardura, euskararen ardura esan nahi dut, ez da oraiko kontua. Badakigu bere sorrera egunetik gaur artio zer eta zenbat egin duen Aurrezki Kutxa Probintzialak euskararen alde.

Eta guzti hori gutxi balitz, Bai Euskarari kanpainako bere emaitza eskeintzen dio gaur Euskaltzaindiari.

Euskaltzaindiari esan dut. Baina nik ongi dakit eta ongi ohartzen naiz eskupeko hori ez dela guregatik eta ez guretzat ere.

Gure Instituzioan —Euskal Herriak bere lau Diputazioen bidez euskara zaintzeko jarri zuen Euskaltzaindi honetan— irudikatua eta mamitua eta gorpuztua bezala ikusten duzue zuek euskara, gure herriaren ondasun berezi hau, eta horren alde, hain zuzen, izan da zuen emaitza.

Honelako oparia jasotzean nik badakit zor berri batekin, erantzunkizun larri batekin eta zama astun batekin lotuak eta zamatuak gelditzen garela. Erantzunkizun berariazko eta apartekoa hartzen dugula geure herriaren aintzinean.

Eta zor honi, hitz ematen dizuet, geure ahalen neurrian kemen eta oldar berri batekin erantzuten saiatuko garela.

Eskerrik asko esatea, hitz hotz bat esatea da, noski, baina esan beharrekoa halaz ere. Har ezazue, otoi, barrenbarrendik eta bihotz-bihotzetik esana baita. Eskerrik asko,

bai zuen gaurko emaitzogatik eta bai euskararen alde beti agertu duzuen kezka eta arranguragatik ere.

Ea guztion artean gure mintzaira bere egoera larri-ahuletik atera eta beste egoera hobego batera aldatzen asmatzen dugun! Halabiz.